

# Bero-beroan

ONINTZA IRURETA

## Eta orain zer?

**ARABAKO FORU ALDUNDIAK** osatutako batzorde zientifikoak esan du: Veleiako aztarnategian duela bi urte baino gehiago aurkitutako idazkunik ez dira Kristo ondorengo III. edo IV. mendekoak. Zientzialari, hizkuntzalari, arkeologo eta historialariek bat egin dute esateko idazkunik gezurrezkoak direla eta manipulaturakoak. Iritzi horrekin bat egin ez duena Eliseo Gil izan da, batzordeak esanak iritziak direla dio eta ez frogak. Foru Aldundiak Gil buru zuen arkeologo taldeari 2012. urtera arte aztarnategian aritzeko zuen bai-mena kendu dio.

2006ko ekainean aurkikuntzaren berri ofizialki eman eta urte erdia

baino lehen batzordeko kide ziren –eta diren– Joakin Gorrotxategi eta Joseba Lakarra hizkuntzalariak zalantzak agertu zituzten. Joan Jose Larrea EHUko irakasleak publikoki defendatu zituen biak. Inork gutxi defendatu zituen horien iritziak, publikoki behintzat, baina poliki-poliki aztarnategian aurkitutako gero eta adibide gehiagoren berri eman da komunikabideetan, zalantza indartzen lagundu dutenak. Dela euskarazko hitz harri-garriak III. eta V. mende artekoak izateko (arrapa, arrosa, gorri, urdin...), dela idazki latinoetan garai hartan ezagutzen ez ziren komak eta puntuak... Hedabide batzuetan esan da idazkunak manipulatu dituztenak ez direla oso puntakoak izan, oso aldre-

bes aritu zirela, sustatu.com-en “Veleiako disparteak” jarri diete akats zerrendari izena.

Orain disparteak baldin badira, gaizki egindako gezurrak baldin badira, zergatik ez dira lehenago argitu zalantzak? Hain agerikoa bada orain, lehen ez? Agian, jakitunek esango dute bi urte hutsaren hurrengo direla horrelako lanetarako, eta arrazoi izango dute, baina herritar xumeari nola esplikatzen diozu aurkikuntza egin eta segituan susmoak izanda bi urte behar izatea dena hankaz gora jartzeko?

Eta manipulazioa izan bada, nork egin du? Noiz? Zergatik? Bi urteko iluna argitzeak bestelako misterioaren aurrean jarri gaitu herritarrak.

## TALAIAN

### Amiantoak hiltzen segitzen du

Izenburua ez da demagogikoa. Euskal Herriko enpresetan amiantoarekin lan egin duen hainbat langilek egoera gordin hori bizi du. Batzuk hil egin dira amianto kriminal horrek eragindako minbiziengatik. Azkeneko biak ondokoak dira: Gasteizko Michelinen lan egin eta duela astebete hil den F. J. Martínez (55 urte) eta Julián Herrero (69 urte), Babcock Wilcoxekeko fundizioan lan egin eta duela hilabete eta gehiago hil zena. Askok hainbat motatako minbiziak dituzte, eta batik bat pleurakoa. Larriena da biktima gehiago agertuko direla, amiantoarekin harremanetan egon eta urteetara ari baitira agertzen ondorioak. Amiantoa erabili duten enpresek inoiz ez dute esan halakorik egin dutenik, eta arriskuez eta ondorioez ez dute hitz egin. Ez dute prebentzio planik ere antolatu. Gaixotasun profesional izendatzea saihesti dute horrela eta kalte-ordainak ebitatu dituzte.

Azken aldian sindikatuak kezkatu, eta ikertu egin dute amiantoarekin gertatzen ari dena eta langileak gehiago jabetu dira egoeraz. Hainbat enpresari neurri judizialak ezarri zaizkie amiantotik babesteko ezer ez egiteagatik eta kalte-ordainak lortu dira langileentzat edo senitartekontzat. Administrazioak eta Lan ikuskapenak beste aldera begiratu dute sarritan. Konpromisoa hartu beharko lukete langileek eta etxeok zigor bikoitza jasan ez dezaten: osasuna galtzea (batzuetan heriotza) eta kalte-ordainik gabe geratzea amianto hiltzailea ez delako gaixotasun profesional. Duela gutxi sortu den Euskadiko Amiantoaren Biktimen Elkarteak, ASVIAMEK, ikerketa eta salaketa bultzatzen ditu. Babes osoa merezi du.

*Juan Mari Arregi*

aretxabaleta



## ARETXABALETAKO

### euskara zerbitzua

euskara zerbitzua

Otalora kalea, 1 • 20550 ARETXABALETA

Tel.: 943 71 18 62 • Faxa: 943 71 18 64

[euskara@aretxabaleta.net](mailto:euskara@aretxabaleta.net)

XABIER LETONA

MALTZAGATIK

## Burujabetza bilguneak, sirena hots liluragarri horiek

IÑIGO URIZ / ARGAZKI PRESS

**BURUJABETZAREN** inguruko indar metaketa kuku egiten ari da euskal politikagintzan, aldi ohikoa duen legez. Egia esan, etengabe dago hor abertzaletasunaren ohi-koan txertatuta, ahul, desiratu bezain urrun, manipulagarrri, potentzialitatez betetako argi apal eta lauso, adierazbide zehatzetan gauzatu denean, unean uneko erre- alitate sakon astindu duena.

ELA eta LABen garai bateko jardue- ra batasuna, Lizarra-Garaziko akor- dioa, Euskal Herria Bai, Nafarroa Bai... gauzatu zirenean indar handiz eragin zuten haiek ukitutako espa- rruak. Euskal Herriko lurralde asko- tako gehiengo politiko eta soziala ordezkatzen duelako da handia bil- gune burujabeen eragina, eta hala ez den leketan minoria oso garran- tzitsu eta baldintzagarri gisa eratzea ahalbideratu duelako.

Maltzagako Mahaia bilgune gisa ari da, EAK espazio burujabea indar- tu nahi du EAJren itzaletik aldentuz, ELAK eta LABek elkarlanerako deiak luzatu dituzte, euren oraindik bide- ratu ezinik, Aralarrek ere baietz, Nazio Eztabaida Guneak bere haus- narketekin jarraitzen du... eta ENA- Meko indarrak ere hor, lehen lerro- an, ohi bezala ondo kokatuak, baina



nahi eta ezinean harrapatuak. EAJ, aldiz, urrun eta mesfidati.

Oztopo ugari izan daitezke indar horiek guztiak gutxieneko adosta- sun markoaren inguruan egituratze- ko, baina hiru erronka nagusi begiz- tatzen dira beste askoren artean: Bat, burujabetzaren aldeko lan iraunkorak gaur egun zer esan nahi duen finkatu eta adostea. Bi, ETA- ren jardun armatua desaktibatzea, lan isila amaitzen denean, jarduera armatua eta bloke honen lan publiko bateratua ez baita bideragarria. Hiru, hauteskunde dinamika gaindi- tzea eta, epe ertain eta luzera begi- ratuko duen jarduera sozio-politiko orokorra barneratzea, Euskal Herri- ko errealtate anitzak kontuan izan- da. Badakit gutxi esatea dela eta hori baino askoz korapilatsuagoa dela, baina lehen urratsik gabe, ezin

besteak eman eta hiru prin- tzipio horiek barneratu ezean, ahalegin berriak jai izango du. Anbiguetate maila bat eraikitzailea izan daiteke lehen urratsetan, baina anbiguetateari ateak etengabe irekita uztea amaieraren hasiera da.

**NAFARROAKO** euskaltzaleak berriz atera dira kalera lurral- de osorako euskararen ofizial- tasuna eske. Legeak bakarrik ez du hizkuntza garapena bermatzen, begira Irlandara edo, gerturago, EAeko esparru askotara (adminis- trazioa, Madrilan menpe diren guneak, kalea, etxea, lana...); baina legerik gabe hizkuntz garapen sen- dorik izan daitekeela fikzioa da egungo Euskal Herrian. Asko bada ere, EAEn azken 25 urteetan egin- dakoa ez da nahikoa, baina legearen babesak nagusitasun espazioak irabazteko ateak zabaltzen ditu. Nafar- roan ez, eta ofizialtasun eza horrek errudun politiko zuzenak ditu, Nafar- roako Gobernua gidatzen duten UPN eta CDN batetik, eta Gobernua sostengatzen duen PSN bestetik. Aurkako joera sakonak ukatu gabe, ordezkatzen duten gizarte eremua euren jarduera baino askoz zabala- goa da euskararekiko.

